

Danele Sarriugarte

◆ IDAZLEA



DANI BLANCO

Barkatu, Amaia

BALDIN ETA atarikoetan ohikoa bada, edo behintzat itxura onekoa, nork bere idazketaren nondik norakoa zedarritzea gutxi gorabehera, edo behin hasita, handinahiki egin nahi izatekotan, nork bere planteamendu estetikoa, literarioa edo dena delako aurkeztea, berdin da oso hastapenetako tipikoa nork bere erreferentziak omentzea eta izen-abizenaz aipatzea; bada, hementxe nator, markatutako bideen zale ere banaizen heinean.

Gaurko honetan hitz-multzotxo bat hainbeste eman digun poetari, gehi gogoetaxka orokorrago bat aldareratzen ditugun heroi horietaz eta zehatzago aldareratzen ditugun arte pertsonak baino ez ziren horiei aldareratzean bizkarreratzen diegun zamaz, alegia, geure espektatibak betetzearena, geure bertsiio hobeago, ausartago, ederrago bat gorpuztearena, sarritan geuk egokitu dizkiegun printzipio batzuei irmoki eutsi beharrarena. Egin izan dudanez sarritan, eta zuri ere garai batean egin nizunez, esan behar dizut Amaia, publikoki esan ere: “Barkatu, Amaia”.

Itxaropen printzak badauden arren, baten batzuek, oro har, zenbait klasikori barra-barra erasaten dien gaitzak jota, nahiko modu axalekoan ezagutzen dugu, kolektiboki, Amaia Lasaren lana, argitaratu eta 40 urte pasata oraindik ere manifestazioetako lelo gisa erabil genitzakeen (eta bide batez genero hori azalberritu) bere poemetatik hiruzpalau baino ez dakizkigu buruz, bat bera ere ez dugu *Nire aitaren etxea* bezain burdinez markatuta.

Itxaropen printzekin hasi naiz, baina, eta niri Josune Muñozen bitartez iritsi zitzaizkidan, Bilboko Alondegian, Literatura Eskolak antolatutako saioan. Eta ikasi nuen Amaia Lasaren askatasun egarria ez zela soilik “*jainko guztiak ukatzea*”, bazela halaber “*lorea baztertzea, inoren eskutan ez zimeltzea*”. Eta, hala ere, nire erreakzio primarioena salata-

ria izan zen, gizarteari, akademiari: zergatik ez zegoen aldarrikatuz, zergatik ez presentean? Eta era berean haserrezkoa autorearekin: zergatik hain liburu gutxi, zergatik Nikaraguara alde egin zenuen hemen hainbeste behar zintugunean, zergatik Amaia? Zenbat feminista errailetako genituzke dagoeneko.

Denbora pasata, bulkadak baretuxeago, atzera itzuli zitzaidan zapore mingotsa eztarrira, nik neuk behiala ebakitako aurpegiratze-doinu gaiztotu hori parez pare egokitu zitzaidanean Kathleen Hannah abeslari eta Riot grrrl mugimenduaren sortzaile nagusietako bati buruzko *The Punk Singer* dokumentalean (2013, Sini Anderson). Izan ere, Hannah-k musika egiteari utzi zion garaiaz diharduela, zaleetako bati abandonu-sentipena hain dario ozen eta patetiko. Hain bidegabe, funtsean. Miresten ditugunek, miresten ditugun arren, ez baitigute ezer zor.


Bukatu aurretik, zorrez ari naizenez, dena estu lotuta eta zirkularki amaitzeko gustuko dudan moduan, izenburua aukeratzera-

koan neuk ere kontuan izan dudana M-en beste abesti horri bi hitz, harira ez datorrela irudi deza-keen eta seguru asko karaktere gehiago mereziko lituzkeen arren: aldareratutakoei exijitzen dieguna ez ote den gurasoei, baina batez ere Amari galdatzen diogunaren antzekoa. Zilbor-hestea mozteaz ari garenean ez ote diegun seme-alabok lasaiegi eskatzen bake sainduan utz gaitzala, soilik ondo dator-kigunean haatik, geuk geure pribilegioei uko egiteko asmorik gabe: gaixo gaudenetan zopa, eta baldintzarik gabekotasuna beti, besteak beste.

Hortaz, bada, barkatu, Amaia, eta, batez ere, eskerrik asko

Amaia, ezer zor ez zenigun

arren hain eskuzabalki eman diguzun guztiagatik. ■



Antton Olariaga

